

## **Itsasu 2025ko otsailaren 16an – Mizel Iribarren, Itsasuko auzapeza.**

Parropia huntaz arduratzen diren lagunek zenbait hitz erraitea proposatu daukute herriko etxearen izenean, eta gogo onez onartu dugu.

Agurtu nahi ditugu lehenik Maite, Maddi eta Graxi, beste hainbat eta hainbat seroren ondotik Itsasuko herri huntan egon direnak, eta duela berriki, Seroreta hutsik utzirik, Kanbo edo Uztaritzerat joan direnak.

Gure herritarrak ziren osoki Graxi, Maddi eta Maite, gure herrian bizi zirenetik. Hemen egiten zuten lan, hemen zitzutzen harreman gehienak, eta, besteak beste, hemen bozkatzen zuten. Gure herritarrak ziren, gure herritarrak izan ziren bezala 170 urtez Itsasun, batzu besten ondotik aldizkatu ziren serora beltxak oro.

Les responsables de la paroisse nous ont proposé de dire quelques mots en ce jour d'hommage à Graxi, Maddi et Maite, et à toutes les sœurs qui sont relayées dans cette église et ce village pendant plus d'un siècle et demi. Beaucoup d'itsasuar ici présents ou absents aujourd'hui, ont leur propre histoire avec nos sœurs. La mienne commença sur le porte bagage du solex de ma tante qui devint sœur, lorsqu' autour de mes cinq ans elle m'emmennait découvrir l'ouvroir et le parterre de fraises dans l'arrière- cour de la maison St Joseph, à l'époque où dans cette église le prêtre officiait dos à l'assemblée, ne prononçait que des prières en latin, et se retournait pour nous sermonner en euskara.

Paper zaharretan agertzen da 1850 aldean Philotée izeneko serora batek hartu zuela beregain neskatoen eskolaren abiatzea Itsasu behere huntan, mendiko auzotako haurrek Latsen baitzuten ikastegia. Eta mendian bazen denbora hartan beherean bezainbat itsasuar. Philotée serorari herriko etxeak emaiten zion diru laguntza neskatoei erakaskuntza sustengatzeko, eta nahiz orduko prefetak debekatu izan diru laguntza horren emaitea, herriko etxeak segitu zuen beretik laguntzaren ixurtzen, eta atxiki zion prefetari eskola hori publikoa zela beste eskolarik neskatoentzat ez izanki herri huntan. Orduan bazirela bertutea zuten gizonak eta emazteak.

Ez gira luzatuko, seroren 170 aldean San Josep edo Seroreta etxea eraiki zitzaienean. Urte ilunagoak dudarik gabe hogoi urte berantago, 1905 urtetan, etxe hori bera hustu behar izan zutenean eta gobernuak haizatzen zituenean. Eliza hau bera ordu hartan ehunka herritarrek zaindu zuten kopeta gora gobernariarrak sartzen ez uztetik. Aspaldiko ixtorioak dira, bainan hau guzia, lehenagokoa eta geroztikakoa, gure herriaren ixtorioa dira, bere itzal eta distira guziekin.

Nous avons voulu rappeler que les religieuses des filles de la croix qui se sont succédé à Itxassou pendant quelques 170 ans se sont certainement fortement impliquées dans la vie sociale de notre commune. Le premier engagement de sœur Philotée remonterait à 1850 et à l'ouverture de la première école pour les filles, soutenue financièrement par Dominique Segura le maire de l'époque

et son conseil, qui ont été jusqu'à désobéir au préfet qui n'entendait pas autoriser le soutien d'une école privée, fut elle la seule de la commune à destination des filles. Quelques 35 ans plus tard, en 1886, aurait été construite la maison Seroreta Saint Joseph qui a abrité nos sœurs jusqu'à récemment. 1905, année de la séparation de l'église et de l'état, n'a par contre pas dû être des plus confortables pour la petite communauté de religieuses, même s'il est largement admis que la population d'Itxassou a plus que bravement défendu son église à l'heure des inventaires de 1905. Tout ceci et beaucoup plus encore font l'histoire de la communauté chrétienne de notre village, mais également l'histoire de notre commune d'Itxassou.

Tout en étant au service de l'église d'Itxassou et de ses paroissiens, pour leur implication dans l'œuvre éducative des enfants et des jeunes filles, pour leur soutien et leur engagement auprès des familles et des personnes qui souffraient de difficultés matérielles et humaines, pour avoir été des bénévoles discrètes et permanentes de l'œuvre sociale de notre village, eskerrak.

Eskerrak Maddi, Maite eta Graxiri, eta zuen aintzineko guzieri, mende t'erdiz herri huntako haurren izpirtituak eskolarekin argituak izan baitira, neskatto eta andere gazte belaunaldi osoerik erakutsi baitzaie josten, brodatzen edo sukaldatzen, Seroretako sala handian izan bait gira denbora batez eskoletako hainbeste haur gure gamelari lotu aintzin haien eltzekariaz berotzen ginenak, eta herri huntako zenbat jenderi eskaini bait dute gure serorek sokorria, laguntza eta bakea.

Herriko etxearen ordezkari bezala, herritar guzien izenean, Milesker.